

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

1082

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, jendaurrean jartzen dituen burdinazko metalak eraldatzeko sektoreko zenbait instalazioen ingurumen-baimen bateratuen berrikuspen-espedienteak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu edo lekualdatzeko, bai eta horiek funtsean aldatzeko ere.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsadurarik ez gertatzeko baldintzak ezartzea, eta, hori ezinezkoa bada, haien kutsadura prebenitu eta kontrolatzekoak, kutsaduraren prebentziorako eta kontrolerako sistema integratu bat ezarri, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua agintzen du ofizios berrikus daitezela ingurumen-baimen integratuak, instalazio baten jarduera nagusia aintzat hartuta teknika eskuragarri onenei (TEO) buruzko ondorioak argitaratu izanaren ondorioz. 2022ko azaroaren 4an, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2022ko urriaren 11ko Exekuzio Erabakia (EB), zeinaren bidez ezartzen baitira burdinazko metalak eraldatzeko industriarako teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren esparruan.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartutako Industriako Isurpenen Erregelamenduaren eta Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 16. eta 15. artikuluek arautzen dute berrikusteko prozedura, eta gutxienez hogeieguneko jendaurreko informazio-aldia ezartzen dute horren barruan.

Horregatik guztiagatik, jendaurrean jarri behar dira eranskinean zehaztutako espedienteak, hogeiegun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak edo oharak aurkeztu daitezzen. Espediente horiek ikusgai egongo dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan: (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 3a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.

ERANSKINA

Burdinazko metalak eraldatzeko sektoreko industriak, berrikuspen-espedienteak jendaurrean jartzen dituztenak

Espedientea	Ingurumen-baimen bateratuaren titularra	Herria/Udalerria
AAI00058_REV_2025_001	Arcelormittal España, S.A.	Etxebarri
AAI00060_REV_2025_001	Galvanizados Olaizola, S.A.	Zumaia
AAI00062_REV_2025_001	Cabarri, S.A.	Arrigorriaga
AAI00067_REV_2025_001	Galvanizados Alaveses Caba, S.A.	Vitoria-Gasteiz
AAI00068_REV_2025_001	Tubos Reunidos Group, S.L.U.	Valle de Trapaga-Trapagaran
AAI00082_REV_2025_001	Sidenor Bright Steels, S.L.U.	Vitoria-Gasteiz
AAI00184_REV_2025_001	Industrias Aperribay, S.L.	Bergara
AAI00188_REV_2025_001	Industrias Fegar, S.A.	Bergara
AAI00195_REV_2025_001	Jesús Oñate y Hermanos, S.A.	Durango
AAI00199_REV_2025_001	Celsa Atlantic, S.L.	Vitoria-Gasteiz
AAI00221_REV_2025_001	Perfiles Especiales Selak, S.L.	Hernani
AAI00236_REV_2025_001	Sidenor Bright Steels. S.L.U.	Legutio
AAI00238_REV_2025_001	Tubacex Tubos Inoxidables, S.A.U.	Amurrio
AAI00254_REV_2025_001	Pretensados del Norte, S.L.	Vitoria-Gasteiz
AAI00256_REV_2025_001	Kelvion Thermal Solutions, S.A.U.	Igorre
AAI00283_REV_2025_001	Laminados Losal S.A.	Gernika-Lumo
AAI00418_REV_2025_001	General Alavesa de Galvanizados, S.L.	Langraiz Oka